

2. eranskina: Herri Partaidetza
Irabazi xederik ez duten entitateentzako
diru laguntzak – 2020

Anexo 2: Participación Ciudadana
Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro – 2020

AURKIBIDEA

2.1. eranskina - Denon intereseko gaietan herritarren parte hartzea sustatzen duten proiektuetarako diru laguntzak.....3

1. Xedea.....	3
2. Helburuak eta diruz laguntzeko moduko jarduerak mugatzea.....	4
3. Eskaerak.....	6
4. Izapideak eta proposamena.....	6
5. Eskaerak baloratzeko eta puntuak zehazteko irizpideak.....	7
6. Ebazpena.....	11
7. Aldaketa.....	11
8. Ordaintzeko moduak eta epeak.....	11
9. Aurrekontua.....	11

2.2. eranskina - Auzo elkarreentzako eta bigarren graduko lurralde entitateentzako diru laguntzak, beren ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak eta material inbentariagarria ordaintzekoak.....12

1. Xedea.....	12
2. Eskaerak.....	12
3. Izapideak eta proposamena.....	13
4. Diru laguntzen balorazio irizpideak, kopuruak zehaztea eta banaketa.....	13
5. Diruz laguntzeko moduko gastuak.....	15
6. Ebazpena.....	16
7. Ordaintzeko moduak eta epeak.....	16
8. Aurrekontua.....	17

ÍNDICE

Anexo 2.1. - Subvenciones a proyectos que fomenten y desarrollen la participación ciudadana en los asuntos de interés público.....3

1. Objeto.....	3
2. Objetivos y delimitación de las actividades objeto de subvención.....	4
3. Solicitudes.....	6
4. Instrucción y propuesta.....	6
5. Criterios de valoración y de cuantificación de las solicitudes.....	7
6. Resolución.....	11
7. Modificación.....	11
8. Formas y plazos de pago.....	11
9. Presupuesto.....	11

Anexo 2.2.: Subvenciones a asociaciones de barrio y entidades de segundo grado de carácter territorial para gastos de mantenimiento de la gestión de sus actividades habituales y para adquisición de material inventariable.....12

1. Objeto.....	12
2. Solicitudes.....	12
3. Instrucción y propuesta.....	13
4. Criterios, cuantificación y distribución de las subvenciones.....	13
5. Gastos subvencionables.....	15
6. Resolución.....	16
7. Formas y plazos de pago.....	16
8. Presupuesto.....	17

2. ERANSKINA: HERRI PARTAIDETZA

Herri Partaidetza Zerbitzuak ematen dituen diru laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak arautzen dira oinarri hauetan. Laguntzak honakoei emango zaizkie:

- denon intereseko gaietan herritarren parte hartzea sustatzen duten **proiektuei**, entitate eskatzailearen lan eremua kontuan hartu gabe.
- **auzo elkarteei eta bigarren graduko lurralde entitateei**, beren ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuetarako eta material inbentariagarria erosteko.

Oinarri Orokorretako 3. artikuluan zehaztutako entitate interesdunek diru laguntza eskatzen duten eta goian aipatzen diren bi deialdietarako eskaera desberdin bana aurkeztu behar dute, eranskin bakoitzean azaltzen diren ereduaren arabera.

2.1. eranskina - Denon intereseko gaietan herritarren parte hartzea sustatzen duten proiektuetarako diru laguntzak.

1. Xedea

Diru laguntza hauen bidez herritarren partehartze ekimenak lagunduko dira, betiere, interes publikoko gaietarako buruzko elkarriketa eta ekintza guneak (informazioa-hausnarketa-eztabaida-proposamena edota eraikuntza kolektiboa) irekitzeko prozesuak edo tresnak sustatu edota partaidetza kolektiboaren eskubide politikoak hizpide badituzte, Donostiako auzoetako bizi kalitatea hobetzeko xedez edota udal politika publikoen erabakitze eta garapen prozesuetan eragiteko aukera izanik.

Herritarren partehartze ekimen hauek eremu publikoan, giza taldeen nahiz komunitate osoaren dinamizazioan eta Donostia osoko zein auzo eremuko auzolan deialditan parte hartzeko praktikak sustatzen dituzten proiektu jakinak edota urte osoko programak izan daitezke, edota herritarren partaidetza sustatu eta erraztu egiten duten tresnen

ANEXO 2: PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Es objeto de las presentes bases la regulación del acceso y concesión de subvenciones con cargo al presupuesto del Servicio de Participación Ciudadana, con arreglo a la siguiente relación:

- **a proyectos** que fomenten y desarrollen la participación ciudadana en los asuntos de interés público, independientemente del ámbito de trabajo de la entidad que lo solicite.
- **a asociaciones de barrio y entidades de segundo grado** de carácter territorial para gastos de mantenimiento de la gestión de sus actividades habituales y para adquisición de material inventariable.

Las entidades definidas en el artículo 3 de las Bases Generales que estén interesadas, presentarán una solicitud diferenciada para cada una de las líneas de subvención arriba mencionadas, siguiendo los modelos que se indican en cada anexo.

Anexo 2.1. - Subvenciones a proyectos que fomenten y desarrollen la participación ciudadana en los asuntos de interés público.

1. Objeto

Podrán ser objeto de subvención las iniciativas de participación ciudadana que promuevan procesos o herramientas que pretendan abrir espacios de diálogo y acción (información-reflexión-debate-proposición y/o construcción colectiva) sobre asuntos de interés público y/o sobre los derechos políticos de participación colectiva, a través de los cuales se busca mejorar la calidad de vida en los barrios de San Sebastián, y/o poder incidir en los procesos de decisión y construcción de las políticas públicas municipales.

Estas iniciativas de participación ciudadana podrán ser proyectos puntuales, programas anuales que promuevan prácticas participativas en el ámbito público, en la dinamización de los grupos humanos implicados y en el conjunto de la comunidad, convocatorias de "auzolan" en el ámbito de la ciudad y de sus barrios y/o desarrollo de herramientas que

garapena.

Hortaz, diru laguntza honen xede izango dira jarraian aipatzen diren ekimenak sustatzen dituzten proiektuak: partaidetza kolektiboaren eskubide politikoak gauzatzeko ekimenak, auzolan ekimenak, entitateen arteko dinamizazioa, sarean lan egitea, prozesuan parte hartzen dutenek zein prozesuaren hartzaileek erantzukizuna beren gain hartzea, eta, azkenik, erabaki publikoak hartzeko prozesuetatik kanpo gelditu ohi diren taldeek horretan parte hartzea, bereziki bazterketa eragin dezaketen faktoreak izateagatik bazterkeria modu bat baino gehiago nozitzen duten pertsonak edo pertsona taldeek, bazterketa faktore horiek direla sexua, genero identitatea, arraza ezaugarriak, etnia jatorria, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste era batekoak, ondasuna, elbarritasuna, adina, sexu orientazioa edo beste edozein ezaugarri edo gorabehera pertsonal edo soziala.

2. Helburuak eta diruz laguntzeko moduko jarduerak mugatzea

Herritarren parte hartzeko mekanismoak dituzten eta beraien helburuen artean ondoren azaltzen diren helburu hauetakoren bat xede duten proiektuek jaso ditzakete diru laguntzak:

- Partaidetza kolektiboaren eskubide politikoetan sakontzen duten ekimen eta proposamenak sustatzea.
- Donostia osoko zein auzo eremuko bizitza kolektiboa dinamizatzeko edota proiektuak garatzen diren inguruko bizi kalitatea hobetzeko auzolana sustatzea.
- Eztabaidarako, ideiak elkarrekin trukatzeko eta komunikazio esperientziatarako gune zein foroak proposatzea.
- Gizarte dinamizazioa eta auzotarren arteko harremanak sustatzea.
- Auzotarrei komunitatearen partaide direla sentiaraztea eta auzoa ezagutaraztea.
- Hiriaren gizarte-kohesioa sustatzea.

fomenten y faciliten la participación ciudadana.

Serán por tanto objeto de subvención los proyectos que potencien la ejecución de los derechos políticos de participación colectiva, las iniciativas en auzolan, la dinamización inter-asociativa, el trabajo en red y la corresponsabilización de los agentes implicados en el proceso y las personas destinatarias del mismo, así como los que favorezcan la participación de colectivos habitualmente excluidos de los procesos de toma de decisiones públicas, y, en particular, de aquellas personas o grupos de personas que sufren una múltiple discriminación por concurrir en ellas factores como el sexo, la identidad de género, los rasgos raciales, el origen étnico, la lengua, la religión, las opiniones políticas o de otro tipo, el patrimonio, la discapacidad, la edad, la orientación sexual o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

2. Objetivos y delimitación de las actividades objeto de subvención

Podrán ser objeto de subvención los proyectos que incorporando mecanismos de participación ciudadana, tengan entre sus objetivos la consecución de algunos de los siguientes:

- Promover iniciativas y propuestas para profundizar en los derechos políticos de participación colectiva.
- Potenciar el trabajo en auzolan para dinamizar la vida colectiva del barrio y/o ciudad, así como para la mejora de la calidad de vida del entorno en el que se inscriben los proyectos.
- Proponer espacios/foros abiertos al debate, al intercambio de ideas y a la elaboración de propuestas.
- Potenciar la dinamización social y la relación entre el vecindario.
- Fomentar el sentimiento de pertenencia a la comunidad y el conocimiento del barrio.
- Promover la cohesión social de la

- Entitateek sarean lan egitera bultzatzea, hau da, elkarren artean eta erakunde eta herritarrekin batera.
- Gizabidezko jokabideei buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.

Bestalde, deialdi honetatik kanpo, bereziki, gelditzen dira:

1) Herritarrekiko harremanekin zerikusia duten ekintzak izan arren, herritarren parte-hartze prozesuekin askotan nahasten direnak, hala nola:

- Entitate barruko dinamizazio soziokulturaleko proiektuek zein urte osoko programek, ez badute xede nagusi bezala elkarriketa eta ekintza guneak irekitzea (informazioa-hausnarketa-eztabaida-proposamena) eremu publikoan, giza taldeen nahiz komunitate osoaren dinamizazioan.
- Parte hartze prozesuen lagungarri ez diren ekintza ludikoak, jaietakoak, kulturalak edo gizarte dinamizaziokoak; hau da, ekintza bera gauzatzean bertan hasi eta bukatzen bada bere xedea eta ez badiu parte hartze prozesu bati ezer ekartzen.
- Parte hartze prozesuei loturik ez dauden zabaltze, komunikazio eta informazio kanpainak, hala nola erakusketak, orri informatzaileak, buletinak, jardunaldi eta informazio kanpainak. Ekintza hauek lagungarri izan daitezke parte hartze prozesu bati lotuak doazenean, baina ez beren xedea zerbitzu edo proiektuei buruz informazioa zabaltzea denean, herritarren eztabaida eta hauen ekarpenen inguruko lanak bultzatu gabe.

ciudad.

- Potenciar el trabajo en red, entre entidades y de éstas con las instituciones y la ciudadanía.
- Incidir en la información y formación de conductas cívicas en general.

Quedan por otra parte, específicamente excluidos de la presente convocatoria:

1) Las actividades que aunque tengan que ver con las relaciones con la ciudadanía, se confunden a menudo con procesos de participación ciudadana, como:

- Proyectos y programas anuales de dinamización sociocultural de las propias entidades, que no tengan como objeto principal abrir espacios de diálogo y acción (información-reflexión-debate-proposición) en el ámbito público, en la dinamización de los grupos humanos implicados y/o en el conjunto de la comunidad.
- Actividades lúdicas, festivas, culturales o de dinamización social que no sean accesorias a procesos de participación, es decir, que su finalidad empiece y acabe en la realización de la propia actividad, y no en la contribución de ésta en un proceso participativo.
- Campañas de difusión, comunicación e información no vinculadas a procesos participativos, como exposiciones, hojas informativas, boletines, jornadas y campañas informativas. Estas actividades serán objeto de subvención cuando se incorporen a un proceso participativo pero no cuando el objeto de la solicitud persiga transmitir información sobre servicios y proyectos, sin estimular el debate ciudadano y el trabajo en torno a las aportaciones por parte de la ciudadanía.

- Inkestak, haztaperen eta beste metodo demoskopikoak, parte hartze proiektuekin harremanik ez dutenean, eta deliberazioa eta emaitzen eztabaidak kontuan hartzen ez direnean.
- Hezkuntza ekintzak, parte hartze prozesu baten lagungarri ez direnean.

2) Eta orokorrean deialdi honetako xedearekin bat egiten ez duten proposamen guztiak.

3. Eskerak

Interesa duten entitateek oinarri orokorretako 4. artikuluan arautzen den web formulario bidez egingo dituzte eskerak eta bertan erantsiko dute 5.

Eskera eta harekin batera datorren dokumentazioa Oinarri Orokorretako 6. artikuluan xedatutako bide eta euskarri digitalen bitartez aurkeztuko da.

4. Izapideak eta proposamena

Proposamena izapidetu eta prestatzeko prozedura oinarri orokorretako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

Prozeduren instrukzioa Herri Partaidetza Zerbitzuko talde teknikoko pertsona batek egingo du.

Balorazio Batzordea, berriz, ondorengo hauek osatuko dute:

- Herri Partaidetzako zerbitzuburua.
- Herri Partaidetza Zerbitzuko teknikari bat.
- Donostiako Udaleko gizarte edo ingurumen eremuko teknikari bat.

Eskerak aztertzeko prozesuan organo instrukzio-egileak entitate eskatzaileei entzuteko galde diezaike, beharrezkoa iruditzen zaion informazio guztia jaso ahal

- Encuestas, sondeos y otros métodos demoscópicos que no tengan relación con proyectos de participación y que no contemplen la deliberación y el debate de sus resultados.

- Actividades de formación que no formen parte de una estrategia para favorecer un proceso de participación.

2) Y en general todas aquellas propuestas que no respondan al objeto de esta convocatoria.

3. Solicitudes

Las entidades interesadas presentarán solicitud en el formulario web regulado en el artículo 4 de las Bases Generales, acompañado de la documentación prevista en su artículo 5.

La solicitud y la documentación de la que se acompaña se presentará a través de los canales y en los formatos digitales establecidos en el artículo 6 de la Bases generales

4. Instrucción-y propuesta

El procedimiento a seguir para la instrucción y la elaboración de la propuesta será el previsto en el artículo 9 de las bases generales.

La instrucción de los procedimientos corresponderá a una persona del equipo técnico del Servicio de Participación Ciudadana.

La Comisión de Valoración estará compuesta por los siguientes miembros:

- La jefa del Servicio de Participación Ciudadana.
- Una persona del equipo técnico del Servicio de Participación Ciudadana.
- Una persona de perfil técnico del área social o medioambiental del Ayuntamiento de San Sebastián.

En el proceso de análisis de las solicitudes, el órgano instructor podrá solicitar la audiencia de las entidades solicitantes al efecto de recabar toda aquella información que

izateko.

5. Eskaerak baloratzeko eta puntuak zehazteko irizpideak

Diru laguntza emateko, balorazioak hainbat fase izango ditu. Lehenik eta behin, proiektua bideragarri izatea baloratuko da. Bigarren fasean, eta zenbatekoa erabakitzeko, 2. faseko pasartean aipatzen diren ezaugarriak izango dira kontuan. Azken fasean, eta kreditu soberakinik izan eta organo izapidegileak egokitzen joz gero, 3. faseko pasartean aipatutako irizpideak baloratuko dira.

1 Fasea – Proiektuaren bideragarritasuna: fase honetan proiektua bideragarri den zehaztuko da. Fase honen bidez, egingarriak diren eta egingarriak ez diren proiektuak bereiziko dira, baina ez da baliagarri izango lagungarri den diru kopurua kuantifikatzeko.

2 Fasea – Zenbatekoa zehazteko kontuan hartuko diren alderdiak:

1) Diagnostikoan, diseinuan, exekuzioan edo/eta beraren ebaluazioan jendearen parte hartzea bultzatzea, 26 puntu arte:

- Beharra antzeman eta misioa zehaztea, gehienez 6.
- Diagnostikoaren, proposamenen edo jardueren esparruetan konpromisoak zehaztea, gehienez 6.
- Entitate sustatzaitik kanpoko eragileak inplikatzeko, gehienez 2.
- Aniztasun diskurtsiboa bilatzea, gehienez 2.
- Mugak eta joko arauak definitzea, gehienez 2.
- Partaidetza prozesu baten oinarritzko faseak kontuan hartzea, gehienez 2.
- Egokitzeko gaitasuna, gehienez 2.
- Kaltetuen, interesatuen edota inplikaturako eragileen artean informazio eta komunikazioaren trukea sustatzea, gehienez 2.
- Jarraipena eta ebaluazioa, gehienez

considere necesaria.

5. Criterios de valoración y de cuantificación de las solicitudes

Para la concesión de la subvención, la valoración tendrá diferentes fases. En primer lugar, se valorará que el proyecto sea viable. En una segunda fase, y para la determinación del importe se valorarán los aspectos que se citan en el párrafo de la fase 2. En la última fase, y en caso de que haya crédito remanente y así lo considere el órgano instructor, se valorarán los criterios mencionados en el párrafo de la fase 3.

Fase 1 - Viabilidad del proyecto: en esta fase se determinará que el proyecto es realizable. Esta fase discriminará los proyectos realizables y no realizables, pero no servirá para la cuantificación del importe subvencionable.

Fase 2 - Aspectos a considerar para la determinación del importe:

1) Que promueva la participación social en el diagnóstico, diseño, ejecución y/o evaluación del mismo, hasta 26 puntos:

- Detecta necesidad y fija misión, 6 max.
- Fija compromisos de diagnóstico, propuestas o actuaciones, 6 max.
- Implica a agentes externos a la entidad promotora, 2 max.
- Busca la diversidad discursiva, 2 max.
- Define los límites y reglas de juego, 2 max.
- Contempla las fases básicas de un proceso de participación, 2 max.
- Capacidad de adaptación, 2 max.
- Promueve la transferencia de información y comunicación entre los agentes implicados, la ciudadanía interesada y/o los afectados, 2 max.
- Seguimiento y evaluación, 2 max.

2.

2) Maila guztietan sarean lan egitea eta parte hartzen duten guztiak erantzukizuna beren gain hartzea bultzatzea, 10 puntu arte:

- Sarean lan egitea: auzokide edo beste eragile eta entitateekin harremanak izatea, gehienez 5.
- Prozesuan inplikaturako eragileen arteko erantzukizuna, gehienez 5.

3) Gizabidetasuna, herritarren arteko elkarriketa eta elkar ulertzea sustatzen duten partaidetza-jarduerak ezartzea, 6 puntu arte:

- Behar handiak dituzten edota arriskuan dauden taldeak prozesuan barneratzea, gehienez 3.
- Jarrera eta diskurtso desberdinen arteko topaketa sustatzea, gehienez 3.

4) Komunikazio plana, 10 puntu arte:

- Herritarrei irekitako bilera eta ekimen deialdietarako komunikazioa, gehienez 2.
- Prozesuaren garapenaren informazio bilketa eta komunikazioa, gehienez 2.
- Parte hartzaileei eta talde eragileei komunikazioa zabaltzea, gehienez 2.
- Itzulketa, gehienez 2.
- Prozesua gizarteratzea, gehienez 2.

5) Gizabidezko balio hauek bultzatzea: ingurunea, ingurumena eta gune publikoak errespetatu eta haiekiko konpromisoak hartzea, 6 puntu arte.

6) Dauden baliabideak erabiltzea, 6 puntu arte.

7) Entitateak proiekturako lortutako finantza baliabideak eta eskatutakoaren eta beste baliabide batzuen arteko proportzioa, 8 puntu arte:

2) Que promocioe el trabajo en red a todos los niveles y la corresponsabilización de todos los implicados, hasta 10 puntos:

- Trabajo en red: relaciones con vecindario, otras entidades e instituciones, 5 max.
- Corresponsabilidad entre los agentes implicados en el proceso, 5 max.

3) Que aplique prácticas participativas que favorezcan el civismo y el diálogo y entendimiento entre la ciudadanía, hasta 6 puntos:

- Incluye a grupos desfavorecidos y/o vulnerables en el proceso, 3 max.
- Fomenta el encuentro entre posturas y discursos diferentes, 3 max.

4) Plan de comunicación, hasta 10 puntos:

- Comunicación a la ciudadanía de las reuniones abiertas y de las convocatorias de actividad, 2 max.
- Recogida de la información y comunicación del desarrollo del proceso, 2 max.
- Difusión de la comunicación a las personas y agentes que participan, 2 max.
- Devolución, 2 max.
- Socialización del proceso, 2 max.

5) Que promocioe los valores cívicos de respeto y compromiso con el entorno, medio ambiente y los espacios públicos, hasta 6 puntos.

6) Que aproveche recursos existentes, hasta 6 puntos.

7) Los recursos financieros que aporta la entidad al proyecto y proporción de lo solicitado respecto de otros medios, hasta 8

- %10 arte, gehienez 2.
 - %20 arte, gehienez 4.
 - %30 arte, gehienez 6.
 - %40 arte, gehienez 8.
- 8) Urtean zehar programa zabaltzea, 6 puntu arte:
- Urtean zehar planifikatuta egotea, gehienez 3.
 - Ekimenak hainbat hilabetetan izatea, gehienez 3.
- 9) Euskara sustatzea, 3 puntu arte:
- Eskara eta proiektu dokumentua euskaraz egitea, puntu 1.
 - Banatutako material didaktikoak eta komunikazio euskarrietan euskara lehenestea, puntu 1.
 - Deialdi irekietan euskara lehenestea, puntu 1.
- 10) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea, 3 puntu arte:
- Entitate eskatzaileak genero perspektiba integratua izatea barneko lanean eta egituran, puntu 1.
 - Datu segregatuak jasotzea, puntu 1.
 - Proposamen eta ekimenetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren sustapen bitartekoak kontuan hartzea, puntu 1.
- 11) Berritzailea izatea, 4 puntu arte:
- Proposatutako ekimenen originaltasuna eta helburuekiko egokitasuna, gehienez 2.
 - IKTak erabiltzea, gehienez 2.
- 12) Proiektuaren adierazgarritasuna eta gizarte proiektzioa, 6 puntu arte:
- Proposatutako gaiari dagokionez, gehienez 2.
- puntos:
- Hasta 10%, 2 max.
 - Hasta 20%, 4 max.
 - Hasta 30%, 6 max.
 - Hasta 40%, 8 max.
- 8) Que sea una programación estable a lo largo del año, hasta 6 puntos:
- Que esté planificada a lo largo del año, 3 max.
 - Acciones en diferentes meses, 3 max.
- 9) Que promueva la utilización del euskera, hasta 3 puntos:
- Realizar la solicitud y el documento del proyecto en euskera, 1 punto.
 - Que los materiales didácticos distribuidos y los soportes comunicativos prioricen el euskera, 1 punto.
 - Que en las convocatorias abiertas se priorice el euskera, 1 punto.
- 10) Que promueva la igualdad entre hombres y mujeres, hasta 3 puntos:
- Que la entidad solicitante tenga integrada la perspectiva de género en su trabajo interno y en su estructura, 1 punto.
 - Recoger datos segregados, 1 punto.
 - Tener en cuenta los mecanismos para la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres en las propuestas y acciones, 1 punto.
- 11) Que tenga carácter innovador, hasta 4 puntos:
- Originalidad e idoneidad de las acciones propuestas respecto a los objetivos, 2 max.
 - Aplicación de TIC, 2 max.
- 12) La representación y proyección social, hasta 6 puntos:
- Sobre el tema sustantivo propuesto, 2 max.

- Auzoari dagokionez, gehienez 2.
- Hiriari dagokionez, gehienez 2.

13) Proiektuaren kalitatea, 6 puntu arte:

- Edukiari dagokionez, partaidetza prozesuen fase desberdinetako informazioa jasota egotea, gehienez 3.
- Koherentzia izatea antzemandako beharren, finkatutako helburuen, proposatutako ekimenen eta zehaztutako aurrekontuen artean, gehienez 3.

Diru laguntzak emateko zehaztutako aurrekontu osoa urteko proiektuei esleitutako puntu guztien baturaren artean zatituko da eta horrela puntu bakoitzaren balioa aterako da. Puntuaren balioa proiektu bakoitzari esleitutako puntuez biderkatu ondoren zehaztuko da bakoitzari emango zaion diru kopurua.

3. fasea - Aurreko balorazio fasean %100ean diruz lagundu ez diren proiektuen balorazio irizpideak, kreditu soberakina agortu arte.

- 1) Baloratutako gainerako proiektuen eremu geografiko osagarriak bere baitan hartzea, 10 puntu.
- 2) Baloratutako gainerako proiektuetan landu ez diren gaiak jorratzea, 10 puntu.
- 3) Auzo bat baino gehiagotan garatzea, 10 puntu.

2. faseko kreditu soberakina 3. faseko balorazio irizpideetan oinarrituta emandako puntuen batuketaren artean zatituko da eta honek puntu bakoitzaren balorea zehaztuko du. Puntuaren balorea, proiektuak lortutako puntuez biderkatu ondoren zehaztuko da 3. fasean banatutako diru laguntza kopurua.

Proiektuaren gauzatzearekin harremana duten administrazio eta funtzionamendu gastuak ez dira diru laguntzaren xede izango.

Proposatutako diru laguntza kopurua ez da inoiz programaren aurrekontuan jasotako defizitaren %100 baino gehiago izango.

- Sobre el barrio, 2 max.
- Sobre la ciudad, 2 max.

13) Calidad del proyecto, hasta 6 puntos:

- En cuanto a los contenidos que se recoja la información de las diferentes fases de un proceso participativo, 3 max.
- Coherencia entre las necesidades detectadas, los objetivos fijados, las acciones propuestas y los presupuestos reflejados, 3 max.

El total del presupuesto destinado a este anexo dividido entre la suma de puntos adjudicados a todos los proyectos o programas anuales subvencionables, fijará el valor de cada punto. El valor equivalente a un punto, multiplicado por los puntos con los que se ha valorado cada proyecto, determinará la cuantía de la subvención otorgada.

Fase 3 - Criterios de valoración hasta agotar el crédito remanente entre los proyectos que no hayan sido subvencionados al 100% en la fase anterior de valoración.

- 1) Que cubran ámbitos geográficos complementarios al resto de solicitudes valoradas, 10 puntos.
- 2) Que aborden temáticas diferentes al resto de solicitudes valoradas, 10 puntos.
- 3) Que cubran más de un barrio, 10 puntos.

2. El total del remanente sobrante de la fase 2 dividido entre la suma de los puntos adjudicados conforme a los criterios de esta fase 3 fijará el valor de cada punto. El valor equivalente a un punto, multiplicado por los puntos con los que se ha valorado cada proyecto, determinará la cuantía de la subvención otorgada en esta fase 3.

No serán objeto de subvención los gastos de administración y funcionamiento asociados a la administración del proyecto.

En ningún caso la cantidad propuesta de subvención será superior al 100% del déficit presentado en el presupuesto del proyecto.

Diruz lagundutako ekimenak sortutako diru sarrerak lagundutako proiektura zuzenduko dira.

Hasierako aurrekontuan finantziario propioaren ehunekorik azaltzen bada, azkeneko justifikazioan ere azaldu behar du, ehuneko hori erabiliko baita doikuntzak egiteko, egin beharrik bada.

6. Ebazpena

Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da prozedura hori ebazteko eskumena duen organoa.

7. Aldaketa

Diru laguntza emakidan kontuan izan diren baldintzen aldaketa esanguratsua izatekotan, Oinarri Orokorretako 11.8 artikuluan xedatutakoari erreparatuko zaio.

8. Ordaintzeko moduak eta epeak

Diru laguntza bi zatitan ordainduko da, salbuespenak salbuespen:

- %70, Gobernu Batzarrak ontzat emandakoan.
- Gainerako %30, diru laguntza zuritzeko Oinarri Orokorretako 16. artikuluan azaltzen diren dokumentuak aurkeztu eta ontzat ematen direnean. 2021ko urtarrilaren 29an amaituko da zuriketarako dokumentazioa aurkezteko epea.

9. Aurrekontua

Udalak diru laguntza hauetarako aurrekontuan izendatutako diru kopurua 27.722 eurokoa da.

Eranskin honetako diru laguntzak emateko ebazpena egin ondoren soberakinik egongo dela aurreikusiz gero, 2.2 eranskineko diru laguntzetarako xedaturiko zenbatekoa gehitzeko erabiliko da.

Los ingresos generados por la actividad subvencionada habrán de destinarse al proyecto subvencionado.

El porcentaje de financiación propia que pudiera aparecer en el presupuesto inicial habrá de mantenerse en la justificación final y será el que se aplique para el reajuste en su caso.

6. Resolución

El órgano competente para resolver el procedimiento es la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián.

7. Modificación

En el caso de producirse cualquier modificación sustancial de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención se estará a lo dispuesto en el artículo 11.8 de las Bases Generales.

8. Formas y plazos de pago

El abono de la subvención determinada se realizará, salvo excepciones, en dos partes:

- El 70% de la cantidad, una vez aprobada por la Junta de Gobierno.
- El 30% de la cantidad, una vez presentados y validados los documentos exigidos para la justificación de la subvención en los términos establecidos en el artículo 16 de las Bases generales. El plazo de entrega de la documentación justificativa finaliza el 29 de enero de 2021.

9. Presupuesto

El importe destinado por el Ayuntamiento para financiar estas ayudas económicas asciende a 27.722 euros.

En el caso de que, una vez elaborada la resolución de concesión de las subvenciones correspondientes al presente anexo, se prevea la existencia de remanente, éste acrecerá el importe previsto para atender las subvenciones del anexo 2.2.

2.2. eranskina - Auzo elkarteentzako eta bigarren graduako lurralde entitateentzako diru laguntzak, **beren ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak eta material inbentariagarria ordaintzekoak.**

1. Xedea

Hiriaren interes orokorrak defendatzea eta herritarren bizi kalitatea hobetzea helburu nagusi duten auzo elkarteentzako eta bigarren graduako lurralde entitateentzako diru laguntzak arautzen dira eranskin honetan.

Auzo elkarte gisara hartuak izango dira lehentasunez lurralde ikuspegitik lan komunitarioa egiten duten entitateak, euren egoitzako auzo mailako ikuspegi orokorra dutenak, eta beraien ekinbidea jarraikortasunez garatzen dutenak.

Ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak ordaintzeko eta material inbentariagarria erosteko emango dira. Herritarren entitateek beren burua antolatzeke gaitasuna areagotzea dute helburu diru laguntzok, lana hobeto egin ahal izan dezaten.

Ordezkaritza organoa entitate bakoitzaren lan esparru geografikoaren eremuan hauteskunde prozesu irekiaren bidez osatzen duten entitateentzako laguntzek izango dute lehentasuna.

2. Eskaerak

Interesa duten entitateek oinarri orokorretako 4. artikuluan arautzen den web formulario bidez egingo dituzte eskaerak eta bertan erantsiko dute 5. artikuluan arautzen den dokumentazioaz gainera honako dokumentazio

- Urteko entitatearen ekintzen plangintza, komunitatearengan duen eragina eta proiektzioa azalduta.
- Espero diren gastu eta diru sarrerak, ondoren azaltzen diren edukiak azalduz:

A.) Gastu arrunta: lokalen

Anexo 2.2.: Subvenciones a asociaciones de barrio y entidades de segundo grado de carácter territorial **para gastos de mantenimiento de la gestión de sus actividades habituales y para adquisición de material inventariable.**

1. Objeto

Es objeto del presente anexo regular la concesión de ayudas económicas destinadas a las asociaciones de barrio y entidades de segundo grado de carácter territorial, cuyo objeto fundamental sea la defensa de los intereses generales de la ciudad y la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía.

Se entenderá por asociación de barrio aquella entidad que trabaje comunitariamente desde un punto de vista prioritariamente territorial, con una visión general del barrio en el que tenga su sede social y que desarrolle su actividad de manera continuada.

Se subvencionarán los gastos de mantenimiento de la gestión de sus actividades habituales y la adquisición de material inventariable. El fin de estas ayudas es reforzar la capacidad de autoorganización de estas entidades ciudadanas para que puedan desarrollar mejor su trabajo.

Serán prioritarias las ayudas a entidades que configuren su órgano representante mediante un proceso abierto de elecciones en su ámbito geográfico de actuación.

2. Solicitudes

Las entidades interesadas presentarán solicitud en el formulario web regulado en el artículo 4 de las Bases Generales, acompañado de la documentación prevista en su artículo 5, así como de la siguiente documentación:

- Planificación anual de la actividad de la entidad, incidiendo en su impacto y proyección comunitaria.
- Previsión de gastos e ingresos que debe contener:

A.) Gasto corriente: mantenimiento de

mantentzea, hornidurak (garbiketa, argi-indarra, telefonoa, Internet...), bulegoko material suntsikorra, inprimategiko edizio orokorrak eta publizitatea, informatika ekipoen mantentzea, web orriak, aseguruak, gestoriak, federazio edota koordinakunde kuotak, bestelakoak.

B.) Material erosketak: egoitzarako oinarrizko altzariak, suntsikorra ez den bulegorako materiala, material informatikoa (hardware) eta ikus-entzunezkoa.

Eskatzen den kontzeptu bakoitza hornitzaileak emandako aurrekontuaz lagunduta aurkeztu beharko da.

Datu hauek guztiak, dagokion web formularioan jasoko dira.

Eskaera eta harekin batera datorren dokumentazioa Oinarri Orokorretako 6. artikuluan xedatutako bide eta euskarri digitalen bitartez aurkeztuko da.

3. Izapideak eta proposamena

Proposamena izapidetu eta prestatzeko prozedura oinarri orokorretako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da.

Prozeduren instrukzioa Herri Partaidetza Zerbitzuko teknikari batek egingo du.

Balorazio Batzordea, berriz, ondorengo hauek osatuko dute:

- Herri Partaidetzako zerbitzuburua.
- Herri Partaidetza Zerbitzuko teknikari bat.

Eskaerak aztertzeko prozesuan organo instrukzio-egileak entitate eskatzaileei entzuteko galde diezaike, beharrezkoa iruditzen zaion informazio guztia jaso ahal izateko.

4. Diru laguntzen balorazio irizpideak, kopuruak zehaztea eta banaketa

2.2. eranskinean jasotako laguntzetarako dagoen diruaren %30, B motako diru

locales, suministros (limpieza, electricidad, teléfono, Internet), material de oficina fungible, ediciones genéricas de imprenta o publicidad, mantenimiento de equipos informáticos, páginas web, seguros, gestorías, cuotas de federaciones y/o coordinadoras, otros.

B.) Adquisición de material: mobiliario básico, material de oficina no fungible, material informático (hardware) y audiovisual.

Cada concepto solicitado deberá ir acompañado de presupuesto emitido por el proveedor.

Todos estos datos se recogerán en el formulario web de solicitud.

La solicitud y la documentación de la que se acompaña se presentará a través de los canales y en los formatos digitales establecidos en el artículo 6 de la Bases generales

3. Instrucción y propuesta

El procedimiento a seguir para la instrucción y la elaboración de la propuesta será el previsto en el art. 9 de las bases generales.

La instrucción de los procedimientos corresponderá a una persona del equipo técnico del Servicio Participación Ciudadana.

La Comisión de Valoración estará compuesta por los siguientes miembros:

- La jefa del Servicio de Participación Ciudadana.
- Una persona del equipo técnico del Servicio de Participación Ciudadana.

En el proceso de análisis de las solicitudes, el órgano instructor podrá solicitar la audiencia de las entidades solicitantes al efecto de recabar toda aquella información que considere necesaria.

4. Criterios, cuantificación y distribución de las subvenciones

Un 30% de la cantidad destinada a este anexo (2.2) se distribuirá entre las entidades que

laguntzak (material inbentariagarria ordaintzekoak) jasotzeko baldintzak betetzen dituzten entitateen artean banatuko da: bakoitzari dagokion kopurua entitate guztiek batera hartuta eskatu duten zenbateko osoarekin haztatuz kalkulatu da.

Material inbentariagarriarako inoiz ez zaizkio 400 € baino gehiago emango onuradun bakoitzari.

Banaketaren ondoren material inbentariagarriarako jasotako 2.2 eranskineko aurrekontuko kopuruan soberakinik balego (B motako gastua), soberakina diru laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten entitateen artean hainbanatuko da.

2.2. eranskinean jasotako laguntzearako dagoen diruaren %40, A motako diru laguntzak (ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak) jasotzeko baldintzak betetzen dituzten entitateen artean hainbanatuko da. Ordezkarri organoa entitatearen lan esparru geografikoaren eremuan hauteskunde prozesu irekiaren bidez osatzen duten entitateek gainontzeko entitateen balio bikoitza izango dute.

2.2. eranskinean jasotako laguntzearako dagoen diruaren %30, A motako diru laguntzak (ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak) jasotzeko baldintzak betetzen dituzten entitateen artean banatuko da: bakoitzari dagokion kopurua entitate guztiek batera hartuta eskatu duten zenbateko osoarekin haztatuz kalkulatu da.

Kasu batzuetan, aurrekontuaren %100 ordainduko da, Zerbitzu honek hala irizten badio. 2.2. eranskinari dagokionez, inoiz ez zaizkio 2.200€ baino gehiago emango onuradun bati.

2.200€-ko gehienezko kopurura iritsi diren onuradunen kreditu soberakina, deialdiko beste onuradunen artean birbanatuko da,

cumplan las condiciones establecidas para ser beneficiarias de las subvenciones para adquisición de material inventariable (tipo gasto B), ponderando la cantidad subvencionable que solicita la entidad con la suma total de subvencionable que presentan todas las entidades.

En ningún caso la cantidad total de subvención para adquisición de material inventariable excederá la cantidad de 400 € por entidad beneficiaria.

Si tras la distribución hubiera remanente sobrante en la cantidad del presupuesto del anexo 2.2 destinada a la adquisición de material inventariable (tipo gasto B), ese sobrante será distribuido en partes iguales entre las entidades que cumplan las condiciones establecidas para ser beneficiarias de las subvenciones.

Un 40% de la cantidad destinada a este anexo (2.2) será distribuida en partes iguales entre las entidades que cumplan las condiciones establecidas para ser beneficiarias de las subvenciones para gastos de mantenimiento de la gestión de sus actividades (tipo de gasto A). Las entidades que configuren su órgano representante mediante un proceso abierto de elecciones en su ámbito geográfico de actuación computarán el doble que el resto de entidades.

Un 30% de la cantidad destinada a este anexo (2.2) se distribuirá entre las entidades que cumplan las condiciones establecidas para ser beneficiarias de las subvenciones para gastos de mantenimiento de la gestión de sus actividades (tipo de gasto A), ponderando la cantidad subvencionable que solicita la entidad con la suma total de subvencionable que presentan todas las entidades.

En algunos casos, se subvencionará el 100% del presupuesto según valoración de este Servicio. En ningún caso la cantidad total de subvención, en lo que se refiere a este anexo 2.2, excederá la cantidad de 2.200€ por entidad beneficiaria.

El total del remanente sobrante de las entidades beneficiarias de la cantidad máxima de 2.200€, se redistribuirá entre el resto de las entidades beneficiarias hasta agotar el

deialdiaren kreditu aurrekontua agortu arte.

crédito presupuestario de la propia convocatoria.

5. Diruz laguntzeko moduko gastuak

A motako gastuetan (gastu arrunta):

- Lokalak mantentzea: iturgintza, zurgintza, igeltseritza, margoketak, elektrizitatea, fumigazioak... atearak eta leihoak konpontzea...
- Hornidurak: garbiketa, argi-indarra, ura, zaborra, gasa, telefonoa, Internet... Telefonoa eta Internetaren izenean egon beharko dute. Sukaldeko gasaren gastua ez da onartuko.
- Bulegoko material suntsikorra: papera, boligrafoak, errotulagailuak, karpetak, sobreak, zigiluak, inpresoren kartutxoak eta toner-a, CD-ak, DVD-ak...
- Informatika ekipoen mantentze lanak.
- Inprimategiko edizio orokorrak eta/edo publizitatea.
- Web orriak.
- Aseguruak: erantzukizun zibila eta lokalak. Ekintza puntualen aseguruak ez dira onartuko.
- Gestoriak.
- Kuotak: tokiko edota lurralde mailako federazio edota koordinakundeak.

Bestelako gastuetan, kontzeptu hauek ez dira diruz lagunduko :

- Gabonak, Kaldereroak, Danborrada eta antzeko ekitaldietako gastuak.
- Beste elkarteen ekimen edo jardueretara bideratutako gastuak: Korrika, jaiak...
- Ekintza zehatzei lotutako trofeo eta oroigarriak.
- Hitzaldietan parte hartzeagatik dirua

5. Gastos subvencionables

En los gastos tipo A (gasto corriente):

- Mantenimiento de locales: fontanería, carpintería, albañilería, pintura, fumigaciones... arreglo de puertas y ventanas...
- Suministros: limpieza, electricidad, agua, basura, gas, teléfono, Internet... El teléfono e Internet deberán estar a nombre de la entidad. No se aceptarán gastos de gas de cocina.
- Material de oficina fungible: Papel, bolígrafos, rotuladores, carpetas, sobres, sellos, cartuchos y toner de impresora, CD, DVD...
- Mantenimiento de equipos informáticos.
- Ediciones genéricas de imprenta y/o publicidad.
- Páginas web.
- Seguros: responsabilidad civil y locales. No se aceptarán seguros de actividades puntuales.
- Gestorías.
- Cuotas: federaciones y/o coordinadoras locales y/o regionales.

En otros gastos, no se subvencionarán los siguientes:

- Navidad, Caldereros, Tamborrada y actividades similares.
- Gastos encaminados a otras asociaciones: Korrika, fiestas...
- Trofeos y placas vinculadas a actividades.
- Pagos o dinero por conferencias

edo opariak (partaidetzakoak eta hirigintzakoak izan ezik, berariazko diru laguntzarik ez dutelako).

- Ez dira inondik inora diruz laguntzeko modukoak izango banku kontuetako interes zordunak, gainkargu nahiz isun administratibo eta penalak, eta auzi prozeduretako gastuak. Tributuak gastu subentzionagarriak dira entitate onuradunak benetan ordaintzen dituenetan.

(excepto del tema urbanismo y participación ciudadana, por carecer de línea de subvención específica).

- En ningún caso serán subvencionables los intereses deudores de las cuentas bancarias, los intereses, recargos y sanciones administrativas y penales y los gastos de procedimientos judiciales. Los tributos son gastos subvencionables cuando la entidad beneficiaria los abone efectivamente.

B motako gastuetan (material erosketan):

- Egoitzarako oinarrizko altzariak.
- Suntsikorra ez den bulegorako materiala.
- Material informatikoa (hardware) eta ikus-entzunezkoa.
- Norberaren erabilerarako materialerako eta software informatikorako ez da inolako laguntzarik emango.

Eskatzen den kontzeptu bakoitza hornitzaileak emandako aurrekontuaz lagunduta aurkeztu beharko da.

En los gastos tipo B (compra de material):

- Mobiliario básico para la sede.
- Material de oficina no fungible.
- Material informático (hardware) y audiovisual.
- En ningún caso serán subvencionables ningún tipo de material de uso personal, ni software informático.

Cada concepto solicitado deberá ir acompañado de presupuesto emitido por el proveedor.

6. Ebazpena

Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da prozedura hori ebazteko eskumena duen organoa.

7. Ordaintzeko moduak eta epeak

Diru laguntza bi zatitan ordainduko da:

- Lehena Gobernu Batzarrak onespena eman eta gero; eskaeraren datuetan oinarrituta erabakitako kopuruaren %70 emango da, gehienez.
- Gainerako %30, diru laguntza zurrizko Oinarri Orokorretako 16. artikuluan azaltzen diren dokumentuak aurkeztu eta ontzat

6. Resolución

El órgano competente para resolver el procedimiento es la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián.

7. Formas y plazos de pago

El abono de la ayuda económica que corresponda se realizará en dos partes:

- Se realizará un adelanto de hasta un máximo del 70% de la cantidad determinada en función de los datos presentados en la solicitud, tras la aprobación de la Junta de Gobierno.
- El 30% de la cantidad, una vez presentados y validados los documentos exigidos para la justificación de la subvención en los

ematen direnean.

términos establecidos en el artículo 16
de las Bases generales.

-Diru laguntza jaso duten elkarteek derrigorrez aurkeztu beharko dituzte ordain agirien fotokopiak edo gastu zerrendan txertatu beharko dituzte gastu horiei dagozkien datuak.

-Las entidades beneficiadas con subvención tendrán que presentar obligatoriamente fotocopias de las facturas justificativas del gasto realizado o incluir los datos en la relación de gastos.

2021eko urtarrilaren 29an amaituko da zuriaketarako dokumentazioa aurkez-teko epea.

El plazo de entrega de la documentación justificativa finaliza el 29 de enero de 2021.

8. Aurrekontua

Udalak diru laguntza hauetarako aurrekontuan izendatutako diru kopurua 44.653 eurokoa da.

8. Presupuesto

El importe destinado por el Ayuntamiento para financiar estas ayudas económicas asciende a 44.653 euros.